

Herriko 4 elkarte gastronomikoetako ordezkariek egin dute Urnietako sagardo denboraldiko lehen txotx-a

Representantes de las 4 sociedades gastronómicas de la localidad han realizado el primer txotx de la temporada de sidra de Urnieta



—
02



Errekonozimendua
odol-emalteei

Reconocimiento a las y los
donantes de sangre

—
08



Oinezkoentzako lehentasun
eremua Zaldundegin

Zona de prioridad peatonal
en Zaldundegi

—
05

Tokikoa tokikotik indartuz eman dio hasiera Urnietak sagardotegi denboraldiari



Urnietako sagardotegi denboraldiari hasiera eman zion ekitaldia urtarrilaren 16an ospatu zen Eula sagardotegian eta "Txotx"-ak eta giro onak ez du etenik izango herrian apirila bukaera bitarte.

Gertuko ekitaldi goxoa izan zen, Udaleko eta Aldundiko ordezkari desberdinen presentziarekin kontatu zuena, baita zenbait herritarrekin eta urteko lehen txotx-a egiteko ardura izan zuten Urnietako 4 elkarte gastronomikoetako ordezkariekin ere. Udala tokikoa tokikotik indartzeko saiakera burutzen ari da eta beraiei eman zitzaien hitzordu berezi horretan enbaxadore lanak egiteko aukera.

Bertako produktuak eta naturako familia turismoa

Udalak lanean dihardu bertako produktuen sustapenaren eta naturarekin erlazionaturiko familia turismo arduratsuen alde eta norabide horretan aurrea egiteko asmoa du. Bada, estrategia horren barruan kokatzen da txotx irekiera ekitaldiak antolatze harturiko ekimena. Aurtengoa hirugarren ekitaldia izan da.

Urnietan punta-puntako hiru sagardo-



tegi ditugu (Eula, Oianume eta Altuna) eta herrira etortzen denak bertako sagardo zein jakiez gozatzeko aukera izango du esperientzia ahaztezin bat bizituz. Gainera, nahi duenak, sagardotegiko esperientzia zabalduta, asteburua herria ezagutzeko eta bertako ingurune natural paregabeaz gozatzeko baliatu dezake.

Uzta

Aurtengo uztari dagokionean, Urnietan guztira 170.00 litro ekoiztu dira Euskal Sagardoa jatorri deituraren barruan eta orotara 140.000kg sagar bildu dira Urnietako 6 sagar ekoizleen artean.

Uzta horrekin osaturiko sagardoaren gainean berriz, ondorengo adierazi zuten Eulako Aitor Iguaranek: "Gure kasuan oso puntu onean bildu genuen sagarra. Barietate oso onak izan ditugu sagardoa egiteko eta oso gustura gaude. Kalitatea ona da. Kolore politarekin eta usain garbiarekin".

Ardura

Sagardo denboraldia bizikidetzatza egoki batekin eta giro onean garatzeko, gerturaten den jendeari esperientziaz modu arduratsuan gozatzeko deia luzatzen dio Urnietako Udalak. Horretarako, sagardoa neurritz edatea gomendatzen da.



Fue acto familiar y cercano que contó con la presencia de diferentes representantes del Ayuntamiento y de la Diputación, así como con varios vecinos y vecinas de localidad y representantes de las 4 sociedades gastronómicas de Urnieta que tuvieron la responsabilidad de realizar el primer txotx del año. El Ayuntamiento está llevando a cabo un intento de impulsar lo local desde lo local y por ello se les dio la oportunidad de ejercer de embajadores en esta cita tan especial.

Productos locales y turismo familiar de naturaleza

El Ayuntamiento trabaja por la promoción de productos locales y por un turismo familiar responsable y relacionado con la naturaleza. Dentro de esta estrategia se enmarca la iniciativa adoptada para organizar los actos de apertura del txotx. El de este año ha sido la tercera edición.

En Urnieta contamos con tres sidrerías punteras (Eula, Oianume y Altuna) y las personas que vengan al pueblo podrán disfrutar de sus sidras y alimentos viviendo una experiencia inolvidable. Además, quien lo desee, ampliando su experiencia de sidrería, puede aprovechar el fin de semana para conocer la localidad y disfrutar de su excepcional entorno natural.

Cosecha

En lo que respecta a la cosecha de este año, en Urnieta se han producido un total de 170.00 litros dentro de la denominación de origen Euskal Sagardoa y se han recogido un total de 140.000 kg de manzanas entre los 6 productores de manzana de Urnieta.

Sobre la sidra elaborada con esta cosecha, Aitor Iguaran de Eula señaló lo siguiente: "En nuestro caso recogimos la manzana en un punto muy bueno. Hemos tenido muy buenas variedades para hacer sidra y estamos muy a gusto. La calidad es buena. Con un color bonito y un olor puro".

Responsabilidad

Para desarrollar la temporada de sidra con una convivencia adecuada y en un buen ambiente, el Ayuntamiento de Urnieta invita a la gente que se acerque a disfrutar de la experiencia de forma responsable. Para ello, se recomienda beber sidra con moderación.



Urnieta inicia la temporada de sidrerías impulsando lo local desde lo local

El acto que dio comienzo a la temporada de sidrerías de Urnieta se celebró el 16 de enero en la sidrería Eula y el "Txotx" y el buen ambiente no cesará en la localidad hasta finales de abril.



Oianume jatetxe-sagardotegia

943 55 66 83
www.oianume.com



Altuna sagardotegia

943 55 49 17
www.altunasagardotegia.eus



Eula sagardotegia

943 55 27 44
www.eulasagardotegia.com

Herriko 4 elkarte gastronomikoetako ordezkariak Urnietako txotx ekitaldiaren protagonistak

Urnietako 4 elkarte gastronomikoetako ordezkariak egin zuten herriko sagardotegi denboraldiari hasiera eman zion txotx-a.

Beraiekin elkartu ginen egunean bertan momentua nola bizitu zuten jakiteko eta ekitaldian parte hartzeak zer suposatu zuten ezautzeko.

Ondorengoak dira laurek erantzundako galderak.

1 Garrantzitsua da tokikoa tokikotik bultzatzea, eta kasu honetan elkarte gastronomikoen papera nabarmendu nahi zen.

2 Nola hartu zenuten gonbidapena?

3 Lehenengo txotx-aren momentua berezia izango zen, ezta?

4 Hiru sagardotegi ditugu Urnietan eta denak kalitate handikoak.

5 Nola animatuko zenuke jendea sagardotegietara joatera eta urtean zehar ere Urnietako sagardoa kontsumitzera?



Jerónimo Elozegi (Peña Gorostidi)

1 Noski, inportantea da herriko gauzak indartzea eta laguntzea.

2 Sagardotegietan ibili gara, baina horrelako ekitaldietan inoiz ez, eta polita da.

3 Gu gurean ginen, baina jende guztia begira zegoen eta polita izan da.

4 Hemengo sagardotegiak oso onak dira. Lehen Elutxeta eta Setien ere bagenituen. Garai batean Goikoetxea ere bai. Orain, daudenak bultzatu behar dira.

5 Gure garaian sagardo gehiago edaten zen, baina herriko jendeak jarraitzen du etortzen. Bertatik bertara ditugu eta jarraitu beharra dago.



Mikel Etxeberria (Santa Cruz)

1 Eskertzekoa da guri egindako gonbidapena. Aipatu beharra dago elkarte gastronomikoak behera doazela, ez dagoela sozio berrien sarrerarik, eta ea honek bultzada bat ematen laguntzen duen aurrera jarraitzeko. Lehengo sozietate kultura hori galtzen ari da eta ea denon artean aurrera puntu bat ematen diogun.

2 Ilusioarekin. Ez genekien nolakoak ziren horrelako ekitaldiak, baina oso gustura egon gara.

3 Gurekin kontatzea eta hemen biltzen den jendearekin egotea polita izan da. Denok ezagutzen gara eta familiarreko giroa dago.

4 Kalitatekoak eta indarra eman behar zaienak. Sagardotegiek jendea ekartzen dute eta herriari ere bizitasun bat ematen diote.

5 Garrantzitsua da bertako produktuak kontsumitzea. Denok animatu behar dugu eta denon artean indarra eginda ea gauza hobeto joaten den.



Iñaki Muro (Batzokia)

1 Herriak herriarekin lan egitea eta bertakoa bultzatzea oso garrantzitsua da.

2 Gonbidapena jasotakoan oso polita iruditu zitzaidan. Ekitaldi hau lehen aldiz antolatu zenean herriko bi kirolarik egin zuten lehen txotx-a, aurreko urtean Ignacio Tancok eta aurten, Urnietako elkarteak.

3 Jende asko dago. Alkateak eta zinegotziak daude, Aldundiko jendea, sagardogileak, dantzariak... Gu elkarteetako ordezkariak gara eta jende handiaren garrantzia eman digute. Berezia izan da.

4 Kalitate handia dugu eta sagardo oso ona egiten dute.

5 Batzokiari buelta eman genionean oso garrantzitsuak izan ziren guretzat Josu Garmendia eta Florentino Ugalde alkatea. Jendea elkartera sartzeko saiakera egin genuen eta gainera, erabaki genuen Urnietako sagardotegien sagardoa erostea. Eula, Altuna eta Oianume ditugu, eta ez dugu kanpotik ekartzen. Herrian duguna herriratzen saiatzen gara.



Xabier Sardon (Eteneta)

1 Gaur egun elkarte gastronomikoe-tan behar duguna bazkideek gehiago parte hartzea eta elkartera gehiago etortzea da. Jende kopurua jaitsi egin dela nabaritu dugu.

2 Hasieran gauza pixka bat eman zigungun, iaz Tanco etorri baitzen, ingeniari espazial ospetsua, eta gu nazioarte-koak ez gara, baina ilusioa egin zigun. Garrantzitsua da herria egitea. Ni ez nintzen inoiz horrelako ekitaldi batean egon, eta primeran antolatuta dago. Sagardoaren munduko pertsona garrantzitsuak deitu dituzte, eta primeran dago.

3 Nire lanagatik beldur eszenikoa kenduta daukat. Bagenekien zer egin behar genuen, eta erraza eta oso polita izan da.

4 Sagardogileekin hitz eginez, larunbat eguerdian dena beteta dagoela diote, baina sagardotegiez modu berean edo hobeto gozatzeko aukera ere badago ostiral eta igandeetan.

5 Guk Urnietako sagardoa erosten dugu. Guk sustatu behar dugu bertako sagardoa. Urnietako jendea gara eta hemengo sagardoa bultzatu behar da, oso ona baita gainera. Setien ixteak pena handia eman zigun.



OINEZKOEK LEHENTASUNA DUTEN GUNEA

Zaldundegiko eremuan oinezkoek lehentasuna dutela azpimarratzeko eta espazioaren segurtasuna hobetzeko, pintaketa lanak egin ditu Udalak.

Horrela, argiago geratzen da oinezkoek lehentasuna dute-la ibilgailuen aldean.

ZONA DE PRIORIDAD PEATONAL

Con el propósito de remarcar el carácter peatonal de la zona de Zaldundegi y mejorar así la seguridad del espacio, el Ayuntamiento ha realizado trabajos de pintado.

De esta manera queda más claro que los peatones tienen preferencia sobre los vehículos.



HOBEKUNTZA ETENETA ELKARTEAREN ATZEKO PARTEKO ERREPIDEAN

Eteneta elkartearen atzeko partean kokatzen den errepidean esku hartu du Udalak, zulo bat eta sareta bat hondoratuta baitzeuden.

Egidako hobekuntzekin, errepidea egoera ezin hobean geratu da ibilgailuen zirkulaziorako.

MEJORA EN LA CARRETERA TRASERA DE LA SOCIEDAD ETENETA

El Ayuntamiento ha intervenido en la carretera que se ubica en la parte trasera de la sociedad Eteneta, ya que había un agujero y una rejilla hundida.

Con las mejoras realizadas la carretera ha quedado en un estado óptimo para la circulación de vehículos.

Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko programak jarraipena du



Herriko txikienen artean irakurzaletasuna bultzatzeko programak jarraipena du eta urteko lehen hilabeteetarako saio berriak antolatu dira.

"Liburu baby kluba" 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Saioak Lekaio kultur etxeko areto nagusian garatuko dira eta gehieneko edukiera 20 familiakoa izango da.

"Liburu txiki kluba" 4-6 urte arteko haurrei zuzenduta dago. Saioak liburutegian izango dira.

El programa para fomentar la lectura entre niños y niñas tiene continuidad

El programa para fomentar la lectura entre los más pequeños y las más pequeñas del municipio tiene continuidad y se han

LIBURU BABY KLUBY

Otsailak 4 febrero17:00

Otsailak 25 febrero17:00

Martxoak 4 marzo17:00

Martxoak 18 marzo17:00



LIBURU TXIKI KLUBA

Otsailak 18 febrero17:00

Martxoak 13 marzo17:30
XOXOKA

organizado nuevas sesiones para los primeros meses del año.

"Liburu baby kluba" está dirigida a niños y niñas de entre 0 y 3 años. Las sesiones se desarrollarán en la sala principal de la casa de cultura Lekaio y el aforo máximo será de 20 familias.

"Liburu txiki kluba" está dirigida a niños y niñas de 4 a 6 años. Dichas sesiones tendrán lugar en la biblioteca.

"Bakarrik sukaldean" tailerra

kasturte honi begira Udalak aurkezturiko ikastaro eskaintzaren barruan sukaldaritza tailerra da berritasunetako bat.

"Bakarrik sukaldean" heldu zein gazteei zuzenduta dago. Pertsona bakarrarentzat kozinatzea erraza, aberatsa eta motibagarria izan daiteke eta hori erakutsiko da tailerrean. Arraina saltsan, lapikoko platerak, albondigak edota postreak izango dira prestatuko diren plateretako batzuk. Saio bakoitzean bi plater landuko dira.

Saioak eta izen-ematea

Ikastaroko saioak larunbatetan garatuko dira 11:00-13:30 bitartean Elkartearen Etxean: otsailak 21 eta 28 eta martxoak 7 eta 14.



Parte hartzeko interesa dutenek izena emateko aukera dute Bertan arreta zerbitzuan eta Lekaio kultur etxean otsailak 9 arte.



Taller "Cocina para sobrevivir"

Una de las novedades dentro de la oferta de cursos presentada por el Ayuntamiento de cara a este curso es el taller de cocina.

"Cocina para sobrevivir" está dirigido tanto a personas adultas como a jóve-

nes. Cocinar para uno también puede ser fácil, rico y motivador, y eso es lo que se mostrará en el taller. Pescado en salsa, platos de olla, albóndigas o postres serán algunos de los platos que se cocinarán. En cada sesión se trabajarán dos platos.

Sesiones e inscripción

Las sesiones del curso se desarrollarán los sábados de 11:00 a 13:30 horas en la Casa de las Asociaciones: 21 y 28 de febrero y 7 y 14 de marzo.

Las personas interesadas en participar pueden inscribirse en el servicio de atención Bertan y en la casa de cultura Lekaio hasta el 9 de febrero.

Ekintza ugari Urnietan inauteriak ospatzeko



Numerosas actividades en Urnietta para celebrar el carnaval

Urnietako inauteriak otsailaren 14ean ospatuko dira "telebistako programak" gai nagusia izanda.

Egun horretarako ekintzaz beteriko programa antolatu du Jai Batzordeak herriko elkarten parte hartzearekin. Goizeko 11:00etan izango da lehen hitzordua Txanbolin txistulari bandaren kalejirarekin.

Ondoren, Poxta Zaharrek antolatuta, karropoteoa 12:00etan eta herri bazkaria 14:00etan San Joan plazan izango dira. Arratsaldeko 17:00etan berriz, mozorro kalejira ospatuko da Bosko Anitz txarangarekin San Joan plazatik abiatuta. 18:00etan Poxta Zaharren txarangak hartuko du lekukoa eta 19:00etan hasiko da DJOSTO-ren emanaldia Idiazabal kalean.

Eta 23:00etatik aurrera azkenik, beste DJ bat egongo da Idiazabal kalean Poxta Zaharren eskutik.

Gaztelekua

Gaztelekuan bestalde, otsailaren 13an ospatuko dute inauteria 17:00etatik aurrera. Merendola, mozorro lehiaketa eta sarien banaketa egingo dira.

Los carnavales de Urnietta se celebrarán el 14 de febrero con los "programas de televisión" como tema central.

Para este día la Comisión de Fiestas ha organizado un programa lleno de actividades con la participación de las asociaciones locales. A las 11:00 de la mañana será la primera cita con el pasacalles de la banda de txistularis Txanbolin.

A continuación, organizado por Poxta Zahar, habrá un carropoteo a las 12:00 horas y una comida popular a las 14:00 horas en la plaza San Juan. A las 17:00 de la tarde se celebrará un desfile de carrozas y disfraces con la txaranga Bosko Anitz, la cual partirá desde la plaza San Juan. A las 18:00 tomará el relevo la txaranga de Poxta Zahar y a las 19:00 comenzará la actuación de DJOSTO en la calle Idiazabal.

Y a partir de las 23:00 horas habrá otro DJ en la calle Idiazabal de la mano de Poxta Zahar.

Gazteleku

El Gazteleku, por su parte, celebrará el carnaval el 13 de febrero a partir de las 17:00 horas. Habrá merendola, concurso de disfraces y entrega de premios.

Beat
eroak

HITZA ASKATU,
ERRITMOA MARKATU
RAP TAILERRAK + LEHIAKETA
BURUNTZALDEAN

Beat Eroak: rap tailerrak eta herri arteko lehiaketa Buruntzaldean

Beat Eroak Buruntzaldean garatuko den rap tailerren eta herri arteko lehiaketa-ren proiektua da, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua.

Proiektua bi fasetan antolatuta dago. Otsailean, hitzak, errimak eta mezua landuko dira; martxoan, berriz, rap kantua sortu eta herri arteko lehiaketa aktibatuko da.

Herri bakoitzak bere abestia sortuko du, eta amaieran, entzuleen bozkaren bidez, irabazlea erabakiko da. Lehiaketako saria bideo klip profesional bat grabatzea izango da.

Tailerrak

Tailerrak Odei Barroso eta Telmo Trenor artistek gidatuko dituzte, eta Buruntzaldeko herri guztietan egingo dira. Urnietako hitzorduak ondorengoak dira

Letrak sortzeko saioa: otsailak 9, 17:00, Gaztelekua

Grabazioa: rap kantua: martxoak 2, 17:00, Gaztelekua

Informazio guztia, egutegia eta izen-ematea hemen:



Aitortza odol-emaileen eskuzabaltasunari



Odola ematea bizitzak salbatzen laguntzen duen ekintza solidario eta eskuzabala da. Pertsona askori lagun diezaiokeen keinu txikia, baina ezinbestekoa.

Dohaintza horiek ezinbestekoak dira ospitale-zerbitzuek egunero egiten dituzten transfusio-eskaerei erantzun ahal izateko, eta are eta gehiago orain, Euskadiko odol-erreserbak minimoetan baitaude.

Ekarpena modu jarraian gauzatzen duten eta odol-emate kopuru jakin bat egitera iristen diren herritarrei errekonozimendua egiten zaie.

Aurten, hiru pertsonak jaso dute aitortza:

25 odol-emate: Axier Alkain Aguado

25 odol-emate: Cristina Maria Da Costa Pereira

25 odol-emate: Adolfo Merideño Barras

Ekitaldian parte hartu zuten Jorge Segurado Urnietako alkateak, Consuelo Frutos Gizarte Zerbitzuetako arduradun politikoak eta Odol

Emaileen elkarteko ordezkariak. Mila esker zuen laguntza eta eskuzabaltasunagatik.

• • • • •

Reconocimiento a la generosidad de las y los donantes de sangre

Donar sangre es un acto solidario y generoso que ayuda a salvar vidas. Un pequeño pero crucial gesto que contribuye en el bienestar de muchas personas.

Estas donaciones son imprescindibles para poder atender las demandas de transfusión que realizan diariamente los servicios hospitalarios, y más ahora que las reservas de sangre en Euskadi están en mínimos.

Se reconoce a las personas que realizan su aportación de forma continuada y llegan a realizar un número determinado de donaciones de sangre.



Este año han recibido dicho reconocimiento tres personas:

25 donaciones: Axier Alkain Aguado

25 donaciones: Cristina Maria Da Costa Pereira

25 donaciones: Adolfo Merideño Barras

En el acto de reconocimiento participaron el alcalde de Urnieta Jorge Segurado, la responsable política de los Servicios Sociales Consuelo Frutos y representantes de la asociación Donantes de Sangre.

Gracias por vuestra ayuda y generosidad.

Adrian Cumbres urnietarrak "Somos polvo de estrellas" ikuskizuna estreinatu zuen urtarrilaren 10ean Saroben. Emanaldia nola bizitu zuen kontatu digu eta bere ibilbidea erreparatu dugu.

Aurkeztu zure burua.

22 urteko urnietarra naiz, duela 5 urte Madrilera joan zena arte eszenikoen eta ikus entzunezko komunikazioaren gradu bikoitza ikastera. Txikitan Presentacion de Maria eta Salestarrak ikastetxeetan ikasi nuen. Pertsona sozial, jator, langile eta sortzaile moduan definitzen dut nire burua.

Noiztik datorkizu kultura eta sormenarekiko interesa?

Txikitako bideoak ikusita beti nengoan dantzatzeko, hitz egiten, antzezten, etxeokak mozarrotzen... irakurtzea eta idaztea ere asko gustatzen zitzaidan. Gogoratzen dut Lehen Hezkuntzako irakasleei poemak idazten nizkiela batzuetan.

Madrilera joan izanak arlo horretan sakontzeko aukera eman dizu?

Madrilek gehiago irekitzeko aukera eman dit, txikitan gauzatxo batzuk bakarrik egin bainituen. Madrilen, beste unibertsitate bateko talde batekin kartzeletan eta gazteentzako zentroetan antzezlanak egin ditut. Tetralogia bat ere idatzi dut modu independientean "La verdad en el tiempo". Laburmetraiak ere egin ditut eta unibertsitatean proiektu desberdinetan aritu naiz. Bestalde, Donostiako Mamistegi jatetxean monologoak egin nituen.

Zein dira txikitan egin zenituen gauza horiek?

Bosko Anitzekin "Ederra eta Piztia" musikala egin genuen eta baita "Tu cara me suena" ere. Horretaz gain, Batxilergoan Binahi akademian egon nintzen antzezten, baina ez nuen gauza handirik egin. Nik futboleko jokatzen nuen UKEn. Askotan galdetzen dut zergatik ez nuen funky edo beste zerbaitekin egin. Baina ez naiz damutzen, nire lagun gehienak bertan zeuden eta ondo pasatzen nuen, lotura handia egin nuen taldekideekin eta horrek ere balio handia du niretzat.

Adrian Cumbres: "Grabatuta geratu zait une hori betirako, oso atmosfera berezia sortu zen"



Noiz jabetu zinen antzeztea gustuko zenuela?

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik aktore izan nahi nuen. Oraindik ere hori da gehien gustatzen zaidana, jendearen aurrean eta zuzenean lan egitea oso berezia baita. Halere, orain, gehiago ikusten dut nire burua sortzaile moduan, izan ere, antzezteaz gain, idaztea, zuzentzea, bideoak editatzea eta argazkiak egitea ere gustatzen zait.

Saroben estreinatu zenuen lanean jorratu dituzu sortzaile izatearen adar desberdinak.

Produktzio erreala batean jende asko dago atzean eta hemen lan guztia nire gain egon da. Nire etxeko garajeantseantzen eta nire burua zuzentzen nuen. Eszenografiak, bideo-muntaiak, argiekin eta jantziekin ere ni arduratu naiz, nahiz eta gauza batzuetan laguntza izan dudana. Jantziak egiten adibidez, Mirari Arozamenak lagundu zidan.

Nola sortu zen proiektua?

Arte eszenikoen ikasketak aurreko urtean egin nituen eta antzezlan hau gradu amaierako lanaren zati bat da, ohorezko matrikula eman zidaten gainera. Nik ikerketa bat egin nuen, antzezlanean lantzen dena, eta hortik sortu nuen.

Zer ikusi zuen jendeak ikuskizunean?

7 pertsonaia ezberdin daude ikuskizunean, gai sozial desberdinekin. 7ak lotzen ditu identitatearen bilaketak, norberak egiten duenetik eta inguratzen den jendearengandik abiatuta iristen dena.

Generoa drama existentziala dela esango nuke ikutu komikoekin, izan ere, pertsonaia batekin barre asko egin dezakezu eta hurrengoarekin oso gaizki pasa. Nik pertsonaia bakoitzarekin disfrutatu nuen, eta uste dut hori transmititu nuela.

Lanaren estreinaldia une berezia izango zen zuretzat.

Saroben izateak ilusio handia egiten zidan eta dena eman nuen. Emanaldia bideo baten proiektzioarekin hasi zen eta gero, eskaileretatik jaitsi nintzen. Zegoen energia, jendearen begiradak, txaloak musikaren erritmora... ikaragarria izan zen, publiko guztia bat eginda zegoen. Grabatuta geratu zait une hori betirako, oso atmosfera berezia sortu zen, eta ez da berritoki modu berean sortuko. Madrilen berriz egiten badut oso polita izango da, baina ez da gauza bera izango.

Interesa sortu zuen ikuskizunak eta harmailak bete egin ziren.

Jendearen emozioa sentitzen nuen. Soinua jartzen egon zen nire lagun baten gurasoak negarrez ikusi nituen emozioak, eta hori oso berezia da niretzat. Ez dut Broadway-ko musikal bat egin, baina erreakzioak ikusita uste dut jendearen espektatibak txikiagoak zirela. Jendea harrিতuta geratu zen nire gaitasun fisiko eta testualarekin, bi ordu izan baitziren geratu gabe. Eta baita eszenatokian zenbat gauza egin daitezkeen ikusita horren gauza gutxiarekin.

Zein asmo dituzu etorkizunari begira?

Espero dut hau hasieraren amaiera izatea. Mundu honetan jarraitzeko eta eszenatokira igotzeko borrokatuko dut, hori baita gehien gustatzen zaidana. Dena den, nire plana irakasle izatea da, oinarri sendoa izateko eta, ondoren, sortzaile lanarekin uztartzeko.

Egape ikastola



DBH 2. mailako ikasleak Donostiako harrera sarearekin elkarlanean

DBH 2. mailako ikasleek curriculumarekin loturiko gaiak eta ingurumenaren aldeko baloreak jasotzeaz gain, arloartekotasunean proiektu bat garatu dute komunitateari zerbitzua eskainiz (ikasketa zerbitzua).

Hondakinen kudeaketa eta honek ingurumenean duen eragina aztertu eta gero, berrerabilera eta honek dituen onuretan sakondu dute ikasleek. Donostiako Harrera Sarearen inguruko informazioa aztertu dute eta bertako kideen testigantza jasotzeko aukera izan dute ikastolara etorri zaizkigunean. Elkarteko bolondresak bere esperientzia azaldu digu eta migranteek bere errealitatea kontatu digute. Gainera, aurrez prestatutako galderak egiteko aukera ere izan dugu.

“Goxo-goxo aurtengo neguan” ikas-egoeran jarduera anitzak egin dituzte gure ikasleek. Egape ikastolako familiei idatzi bat bidali zaie kanpainan parte har dezaten animatuz. Sentsibilizazio kanpainarako aurkezpenak prestatu dituzte. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hainbat geletan aurkeztu, kartelak diseinatu eta azkenik arropa eta materialen bilketa antolatu dute. Bukatzeko, elkarteko kideak jasotako materialen bila etorri zaizkigu eskolara.

Gure ikasleen lanak, elkartearekin kolaboratuz eta zerbitzua eskainiz, balio erantsia lortu du.



El alumnado de 2º de ESO colabora con la red de acogida de Donostia

El alumnado de 2º de ESO, además de trabajar temas curriculares y valores ambientales, ha desarrollado un proyecto interdisciplinar que ofrece un servicio a la comunidad (servicio de aprendizaje).

Tras analizar la gestión de los residuos y su impacto en el medio ambiente, el alumnado ha profundizado en la reutilización y sus beneficios. Los alumnos y las alumnas se han informado sobre la Red de Acogida de Donostia y además, han tenido la oportunidad de escuchar de primera mano los testimonios de sus miembros cuando vinieron a la ikastola. La voluntaria de la asociación nos ha explicado su experiencia y los migrantes nos han contado su realidad. Además, también ha habido ocasión de realizar preguntas previamente preparadas.

Nuestro alumnado ha llevado a cabo diversas iniciativas en torno al proyecto “Goxo-goxo aurtengo neguan”. Se ha enviado un escrito a las familias de la ikastola Egape animándolas a que participen en la campaña. Han preparado presentaciones para la campaña de sensibilización, las han presentado en diferentes aulas de Primaria y Secundaria, han diseñado carteles y finalmente han organizado la recogida de ropa y materiales. Para terminar, miembros de la asociación han venido a la escuela a buscar los materiales recogidos.

Salestarrak-Magale ikastetxea



Patiao hezkuntza bihurtzen denean

Ikastetxe batean, hezkuntza informalak garrantzi handia du, ikasgelan ematen den ikaskuntza osatzen eta indartzen baitu. Zentzu horretan, jolasgaraiak bereziki une delikatuak eta esanguratsuak dira, horietan ikasleen gizarte-harremanak, bizikidetzeta eta ongizate emozionala jokoan jartzen baitira.

Urnietako Salestarrak Magale ikastetxean arreta bereziz zaintzen ditugu gune hauek. Irakasleen presentzia aktiboak, jolasgaraietan, gatazkak prebenitzeaz gain, irakasleen eta ikasleen arteko harremana hobetzen du, ikasle bakoitza ingurune lasaia batean hobeto hurbildu, behatu eta ulertzeko aukera eskainiz.

Gainera, aisialdia funtsezkoa da talde batean integrazioa kostatzen zaien ikasleei laguntzeko. Horregatik, astean bi egunetan, talde bakoitzak bere tutorearekin batera joko gidatuetan parte hartzen du, ikasle guztien inklusioa eta parte-hartzea bermatzeko.

Halaber, astean behin, talde bakoitzak barne patioaz goza dezake bere tutorearekin batera. Espazio honek ping-pong mahaiak eta rokodromoa ditu, baita koltxonetak ere, ikasleen jolas partekatua, bizikidetzeta eta garapen pertsonala errazten dituen ingurune atsegina, seguru eta motibatzailea sortuz.



En un centro educativo, la educación informal tiene una gran importancia, ya que complementa y refuerza el aprendizaje que se da en el aula. En este sentido, los recreos son momentos especialmente delicados y significativos, pues en ellos se ponen en juego las relaciones sociales, la convivencia y el bienestar emocional del alumnado. En el Salesianos Magale de Urnieta cuidamos estos espacios con especial atención. La presencia activa del profesorado durante el recreo no solo contribuye a prevenir conflictos, sino que también mejora la relación profesor-alumno



HONDAKINIK ONENA SORTZEN EZ DENA DA: PREBENTZIOAREN GARRANTZIA EKONOMIA ZIRKULARREAN

10 ohitura on eguneroko bizitzan hondakinak murrizteko.

1. Aukeratu poltsa berrerabilgarriak.
2. Elikagaiak alferrik galtzea saihestu.
3. Ontziratutako gabeko elikagaiak erosi.
4. Aukeratu berriro kargatu daitezkeen produktuak.
5. Edan iturriko ura.
6. Mugatu inprimagailuaren erabilera.
7. Aprobetxatu papera eta erabili bi aldeetatik.
8. Materia organikoa konpostatu.
9. Utzi erabiltzen ez duzun arropa edukiontzietan.
10. Ondasunak eta etxetresna elektrikoak konpondu.

EL MEJOR RESIDUO ES EL QUE NO SE GENERA: LA IMPORTANCIA DE LA PREVENCIÓN EN LA ECONOMÍA CIRCULAR

10 buenos hábitos para reducir los residuos en la vida diaria.

1. Opta por bolsas reutilizables.
2. Evita el desperdicio alimentario.
3. Compra a granel.
4. Opta por productos recargables.
5. Bebe agua del grifo.
6. Restringe el uso de la impresora.
7. Aprovecha el papel y útilalo por ambas caras.
8. Compostar la materia orgánica.
9. Deposita en los contenedores de ropa la que ya no uses.
10. Repara bienes y electrodomésticos.

URNIETAKO KZ-GUNEA | 943 023 682 | www.kzgunea.eus

Abenduko ordutegia / horario de diciembre: 16:00-20:00
Astelehenetik ostiralera hilabeteko lehen hamabostaldian / De lunes a viernes la primera quincena del mes

IKASTAROAK (ASTELEHENETIK OSTIRALERA):
CURSOS (DE LUNES A VIERNES):

BIDEOKONFERENTZIA / VIDEOCONFERENCIA:

Online izapideak Osakidetzarekin 4 ordu / Trámites online con Osakidetza 4 horas • Mekanografia. Ikasi hutsetik 4 ordu / Mecanografía. Aprende desde cero 4 horas • Google Argazkiak. Antolatu hodeian zure argazki guztiak 4 ordu / Google Fotos. Organiza todas las fotos en la nube 4 horas • Editatu bideoak zure smartphonearekin 4 ordu / Edita vídeos con tu smartphone 4 horas • Musika aplikazioak zure smartphonean 4 ordu / Aplicaciones de música en tu smartphone 4 horas • Gmail. Posta-elektronikoa baino gehiago 4 ordu / Gmail. Mucho más que un correo electrónico 4 horas • Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu 4 ordu / Google Calendar. Gestiona mejor tu tiempo 4 horas • Google Drive. Bildu eta partekatu zure artxifioak 4 ordu / Google Drive. Almacena y comparte tus archivos 4 horas • Informatika hodeian. Ezagutu zer den hodeia 4 ordu / Informática en la nube. Conoce qué es la nube 4 horas • LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu 4 ordu / LibreOffice Writer. Crea tus documentos de texto 4 horas • LibreOffice Calc. Zure kalkulu orriak sortu 4 ordu / LibreOffice Calc. Crea tus hojas de cálculo 4 horas • LibreOffice Impress. Zure aurkezpenak sortu 4 ordu / LibreOffice Impress. Crea tus presentaciones 4 horas • Erosketa eta ordainketa segurua Interneten 4 ordu / Compra y pago seguro en Internet 4 horas • Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean 4 ordu / Ciberseguridad y privacidad en la red 4 horas

AURREZ AURREKOA / PRESENCIAL:

Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi 20 ordu / Internet Básico. Aprende a navegar y enviar correos electrónicos 20 horas • YouTube. Bideoak ikustea baino gehiago 4 ordu / YouTube. Mucho más que ver vídeos 4 horas • Zure bidaia planifikatu 4 ordu / Planifica tu viaje 4 horas • Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak 4 ordu / Instagram. Publica tus mejores fotos y vídeos 4 horas • Facebook zure smartphonean 4 ordu / Facebook en tu smartphone 4 horas.

URRUNEKOA / A DISTANCIA:

Podcast. Sortu zure irrati-kanala 40 ordu / Pódcast. Crea tu canal de radio 40 horas • Komunikazio ez-presentzialerako tresnak 10 ordu / Herramientas para la comunicación no presencial 10 horas • Canva. Zure diseinuak sortu 10 ordu / Canva. Crea tus propios diseños 10 horas • Sortu zure e-mail marketin kanpainak 20 ordu / Crea tus campañas de e-mail marketing 20 horas • Wordpress. Zure webgunea sortu 20 ordu / Wordpress. Crea tu sitio web 20 horas • Ikasi HTML programatzen 20 ordu / Aprende a programar en HTML 20 horas • Marka pertsonala eta LinkedIn 20 ordu / Marca personal y LinkedIn 20 horas

Komunitate birtualak / Comunidades virtuales:
Zure elkartearen doako webgunea sortzeko aukera eskaintzen dizugu. / Te ayudamos a crear una página web gratuita para tu asociación.

IT Txartela / IT Txartela:

Teknologia berrien gaineko ezagupideen egiaztapena. /
Certificación de conocimientos en nuevas tecnologías.

Agenda kulturala

Otsaila



KANTAZAUNEN KANTU KALEJIRA

Otsailak 4, 19:00 - San Joan plaza



BEAT EROAK: LETRAK SORTZEKO TAILERRA

Otsailak 9, 17:00 - Gaztelekua


Informazio + 7.orria



NAN-A ETA PASAPORTEA EGITEKO ZERBITZU MUGIKO- RRA

Otsailak 11, 8:30-14:15 - San Joan Plaza

Aurretiko hitzordua Bertan bulegoan:
943 008000



INAUTERIAK

Otsailak 14

Informazio +7.orrian



ZAINTZA MAHAIA

Otsailak 18, 17:00 - Kiroldegiko
box-etan



ANTZERKIA: "52 HETZ"

Otsailak 22, 19:00 - Sarobe



KANTAZAUNEN KANTU KALEJIRA

Otsailak 27, 19:00 - San Joan plaza



FAMILIA ANTZERKIA: "ELARA" BIDAIA BAT IZARRETARA

Martxoak 1, 19:00 - Sarobe



BEAT EROAK: RAP KANTUAREN GRABAZIOA

Martxoak 2, 17:30 - Gaztelekua

Informazio + 7.orria



Liburu baby kluba

Otsailak 4, 17:00 - Lekaio kultur etxea

Otsailak 25, 17:00 - Lekaio kultur etxea

Martxoak 4, 17:00 - Lekaio kultur etxea

0-3 urte bitarteko haurrentzat
Informazio + 6.orria

Liburu txiki kluba

Otsailak 18, 17:00 - Lekaio kultur etxea

4-6 urte bitarteko haurrentzat
Informazio + 6.orria